

Odol eta sufrikariozko iragan hurbila

XIX. mendearen erdialdetik aurrera hasi ziren frantsesak Vietnam kolonizatzen, hots, zibilizazio eta kristautasunaren ize-
nean Vietnamgo ondasunak zurru-
patzen eta vietnamdar herria
zapaltzen. Kolonialismoa diru-itu-

rri bilakaturik, frantses kapitala bertaratu eta sekulako irabaziak lortu zituen ikatz-, eztainu-, wolframio- eta zink-meategiei eta te-, kafe- eta kautxu-plantazioei esker, vietnamdarrak bizi- eta lan-baldintza penagarritara behartuz eta miseriako soldatak ordainduz. Adibide xume bat: Michelin enpresaren kautxu-plan-
tazio batean 45.000 vietnamda-
rrek lan egiten zuten; gaixotasun eta desnutrizioaren eraginez haie-
tatik 12.000 hil ziren 1917tik
1944era bitartean. Anartean,
vietnamdar nazionalismoa eta
antikolonialismoa sortu, hazi eta
errotu egin ziren, frantsesek go-
gor zapaldu zutelarik. Komunis-
moa izan zen jatorrizko popula-
zioaren asmoak (independentzia
eta lur-banaketa) bideratzea lor-
tu zuena. Ho Chi Minh-ek
1925ean Vietnamgo Gazte-liga
Iraultzailea eta 1930an Indotxi-
nako Alderdi Komunista sortu zituen.
Frantses gobernuaren aurka-

VIETNAM: etorkizunari begira

A. Mujika

*Hiltzen naizenean zerura
joango naiz, hemen
ifernuan bizi izan bainaiz
ageri-agerian idatzita
zuten txamarrak jantzi
ohi zituzten
estatubatuar soldaduek
Vietnamgo gerra garaian.
Hai entzat ifernualdia
1975ean amaitu zen,
baina vietnamdarrentzat
gerraren ondorioak ez
dira oraino itzali. Hala
ere, orain bakea
dastatzen eta
pobreziatik irteteko
ahaleginetan ari da
Vietnam.*



ko grebak hasi eta 1930-31 bitartean eta 1940an matxinadak izan ziren, baina frantsesek gupidagabe oinperatu zituzten.

Bigarren Mundu Gerran, 1940an, Frantzia nazien menpe gelditu zelarik, Vichyko gobernu kolaborazionistak japoniar armada Vietnamen sartzea onartu zuen. 1941ean Ho Chi Minh-ek Vietnamen Independentziarako Liga, Viet Minh izenekoa, sortu zuen eta japoniarrei aurre egin zien. Hauek arroz-uztak eraman egin

Vietnamdarrak oso langileak dira. Vietnamgo erdialdean dagoen Danang hiriko arrain-merkatuaren gozietako bizitasuna ikus daiteke argazki honetan. Arrantzaleak txalupetan arraina untzietatik kaira garraiatzen dute. Bertan erosleak zain daude.



VIETNAM ZENBAKITAN

Azalera: 331.033 km²

Populazioa (1992an):

69.052.000; populazio-densitate:

208,6 bizt./km²

Populazioaren banaketa

geografikoa: % 20 hiritarra,

% 80 landatarra

Populazioaren banaketa

adin-tarteka: 15 urtetik behera % 39; 15-29 bitartean % 28,7; 30-44

bitartean % 16; 45-59 bitartean % 9,1; 60-74 bitartean % 5,6 eta 75etik

gora % 1,6

Populazio-aurrikuspenak: 2000. urtean 81.094.000; 2010. urtean

95.700.000

Jaiotza-tasa 1.000 biztanleko: 29,5 (munduko batezbestekoa: 26,4)

Heriotza-tasa 1.000 biztanleko: 8,1 (munduko batezbestekoa: 9,2)

Hazkunde-tasa 1.000 biztanleko: 21,4 (munduko batezbestekoa: 17,2)

Emankortasun-tasa seme-alabak izateko adin-tartean dagoen emakume:

3,7

Bizi-itxaropena: 67 urte emakumezkoentzat eta 63 urte gizonezkoentzat

Barne-produktu gordina 1990. ean: 15.200.000.000 dolar

Kanpo-zorra 1989an: 15.072.000.000 dolar

Per capita errenta (1990): 230 dolar (Euskal Herrian 11.650 dolar inguru)

Barne-produktu gordinaren eta populazio aktiboaren banaketa:

nekazaritza % 51,7 eta populazioaren % 72,7; meatzaritza eta indus-

trian % 22,8 eta populazioaren % 10,9; merkataritza % 18 eta popu-

lazioaren % 5,5; eraikuntza % 4,4 eta populazioaren % 2,6; gainera-

koetan % 3,1 eta populazioaren % 8,3

Irrati-kopurua: bat 9,7 biztanleko

Telebista-kopurua: bat 31 biztanleko

Telefono-kopurua: bat 544 biztanleko

Alfabetizazio-tasa 15 urtetik gorako populazioarekiko (1989): % 87,6

(% 93 gizonezkoetan eta % 82,8 emakumezkoetan)



zituzten eta bi milioi vietnamdar goseak hil ziren. Bigarren Mundu Gerra amaituta, frantsesek Vietnam berreskuratu nahi izan zuten. Ho Chi Minh-ek, txinatarrek Vietnam inbadi ez zezaten, frantsesen gobernu onartu egin zuen hasieran, baina berehala ekin zion Viet Minh-ek frantsesen aurkako altxamenduari (1946-54). Ehundaka mila hildako eragin zituen zortzi urteko gerraren ondoren eta Dien Bien Phu-ko bataila erabakitzailearen ondoren, burumakur irten ziren frantsesak. Genebako akordioetan Vietnam bitan zatitzea eraba-

ki zen. Ipar Vietnamen Ho Chi Minh-ek erregimen komunista ezarri zuen eta "elementu anti-iraultzaileen" kontrako jazarpena hasi zen: milaka pertsona exekutatatu eta dozenaka mila espetxeratu zituzten. Hego Vietnamen hasieratik ustelkeria eta nepotismoaren harrak jota egon zen erregimen katoliko eta antikomunista ezarri zen. Herriari bizkar emanda gobernatu zuten, armadaren laguntzaz herria zapalduz. Erregimen antidemokratiko eta hiltzailea izanagatik EEBBn laguntza lortu zuten; "gerra hotza"ren garaian komunismoaren

HERRIAK ETA KULTURAK

Mekanizaziorik eza eta artisau-lana

Industrializazioa azkar garatzen ari da; azkarrago 1990.eko hamarkadaren hasieraz geroztik. Hala ere, Vietnamgo nekazar gizartean teknika tradizionalak eta lantegi familiarak nagusi dira. Argazkietan zetaren siroparen produkzio-prozesuak ikus daitezke.



Zeta-har gazteak itzalean elikatu ondoren (ikus goiko argazkia), har helduak eguzkitan ezartzen dituzte (ikus eskuineko argazkia), lehortegian, pupa-aldiari hasiera eman diezaioten. Zetazko estalki babeslea sortzen hasten denean, ilunpetara eramaten dituzte krisalida osoa osatu arte. Krisalida osaturik, egosi eta goruan irun egiten da; zetazko hari bihurtu, alegia (ikus beheko argazkia). Krisalida hari bihurturik, beronen barruko har egosia ez da galtzen; jangarria baita.



nagusi da oraindik Vietnamen



Siroparen produkzioa: azukre-kanabera birringailuan sartu eta mamia, patsa, lortzen da (ikus goiko argazkia). Pats hori irakinarazi egiten da, gero eta tenperatura txikiagoan egosiz, horretarako ontzi desberdinak erabiltzen direlarik (patsa ontzi batetik bestera eramateko erabiltzen den zalia estatubatuar kasko batez egin dago) (ikus eskuineko argazkia). Patsa egosirik, sirop edo xarabe gozo bihurtzen da. Landare-hostoz egindako molde txikiak isuri (ikus beheko argazkia) eta, hoztu ondoren, moldetik ateratzen dituzte. Gozokiak jateko prest daude! (ikus behean eskuinera dagoen argazkia).



HERRIAK ETA KULTURAK

Vietnamgo gerraren ondorio ekologikoak

Vietnamgo gerran EEBBek ingurugiroa sistematikoki suntsitzea eta erraustea, ekozidua, erabili zuten taktika militar gisa; historian ordurarte parekorik izan ez zuena. Viet Cong-en baseak desegin nahian, 72 milioi litro herbizida (agente laranja, agente urdina eta agente zuria) barreiatu ziren Hego Vietnamgo azaleraren % 16an, oihanak txikituz. Vietnamen zoritxarreko ospea lortu zuen agente laranja, dioxinaduna da. Dioxina da orain arte ezagutzen den munduko produktu kimiko toxikoena, minbiziaren eta mutazio genetikoaren eragile beldurgarria. Gaur egun, 20 urte igarota ere, dioxina elikakatean ageri da oraindik: ikertzaileek dioxina-kantitate handiak aurkitu dituzte lurralde horietan bizi diren emakumezkoen esne-laginean.



Vietnam ibaia askok zeharkatzen dute eta anitz vietnamdar ibai-arrantzatik bizi dira. Harbizidek eta bonbek ibaietako arrantza arras urritu zuten. Argazkian Mekong ibaiaren deltako ibai-besoetako bat ageri da, Can Tho hiririk ikusita.

Bulldozer erraldoiak erabiliz, oihanak, labore-lurrak, eta herri osoak erauzi eta irauli egin zituzten lurzorua hondatuz. Baso suharberak napalm-er bonbardatu zituzten, erre eta erraus zitezen. Kararrizko mendi-mazelak bonbardatu eta azidoa barreiatu zuten, lubiziak eraginez. Elefanteei airetik eraso zieten bomba eta napalm-er, gerrilariak garraiorako erabiltzen zituztelako aitzakiaz. 20.000 km² baso eta soro, hau da Euskal Herri osoak duen adinako azalera, suntsitu zuten estatubatuarrek. Guztira, 13 milioi tona bomba inguru jaurti ziren, hau da, 265 kg bomba biztanleko. Hiroshiman botatako bomba atomikoarena baino 450 aldiz energia gehiago askatu zuten bonbek Vietnamen.

Eraso haren ondorioz baso tropikal joriak ez ziren berriro hazi, arrantza ibaietan eta kostaldean izugarri urritu zen, animalia asko hil ziren, espezie asko galzorian gelditu zen eta labore-lurren produktibitatea gerra aurreko mailaren azpitik dago oraindik. Orobat, zenbait minbizi-mota eta herbizidek eragindako gaixotasunak biziki ugaltu dira populazioan.

Lurrazala 25 milioi bonbak zulokatu zuten, 30 m diametroko kraterrez josiz. Hauetako asko euri-urez bete eta istinga bilakaturik, malaria transmititzen duten eltxoentzat bizileku ezinhobea dira orain. Bestalde, krater sakon horiek arroz-sorotarako erabil zitezkeen lurralde asko alferrik galdu dituzte.

zabalkundea geraraztea baitzuten EEBBek helburu nagusi.


Vietnamgo gerra

Hego Vietnamgo komunistek, Viet Cong izenekoek, Hanoi gobernuaren laguntzaz, hegoaldeko gobernuaren aurkako gerrila-gerrari ekin zioten 1960.eko hamarkadaren hasieran. Gobernuak bere burua galzorian ikusirik, EEBBei laguntza eskatu eta hauek, pixkanaka eta zeharka hasieran eta artez-arte 1964etik aurrera, ofizialki sekula deklaratu ez zen Vietnamgo gerra erdiragarrrian sartuz joan ziren. Gerra 1975ean amaitu zen. Estatubatuarrek porrot eginik irten ziren eta Vietnam batu egin zen. Askotan entzun dugu 58.000 estatubatuar hil zirela gerra hartan; gutxiagotan ordea, 1.500.000 vietnamdar inguru hildako eta milioika zauritu edo kaltetu izan zirela. Gerra zibiletan gertatu ohi bezala, irabazleek galtzaileak gogor zigortu zituzten: erregimen komunistak ehundaka mila hegoaldeko vietnamdar espetxeratu zituen "birheziketa-esparru" zirelakoetan.

Independentzia eta batasunaren ondoren ere ez zuten gerra gaineratik kendu vietnamdarrek. 1978an vietnamdar armadak Kanboia inbaditu eta khmer gorriak gobernutik bota ondoren Hanoiaren aldeko gobernu bat ezarri zuten. Vietnamdarrek khmer gorrien gerrila-gerrari aurre egin behar izan zioten Kanboian 1989 arte.

Bakea azkenik!

Bigarren Mundu Gerraz gero gerra-giroan murgildurik bizi izan direlarik, hainbat eta hainbat vietnamdarrek bakea ezagutu ere ez dute egin. Hainbeste urtez ukatu zaien benetako bakea dastatzen ari dira orain. Gainera,



nez gero. Oraindik nagusi den nekazal gizarte tradizionalaren ohiturak eta baloreak aldabidean dira.

Vietnam Ozeano Bareko hegoekialdean dago, munduko hazkunde ekonomiko handieneko eremuan hain zuzen, Japonia, Txina, Taiwan, Hego Korea, Hong Kong, Singapur, Tailandia, Indonesia eta Malaysiak inguratuta. 70 milioi vietnamdar daude, langile eta arduratsuak (Ekialde Urriko guztiak bezala) eta bertako eskulana merke-merkea da. Mauka ederra atzerriko kapitalarentzat! Egoera politikoak giroa karamilatzen ez badu, Vietnamek, gerra ahazturik, aparrak bezala egingo du gora.



Gerra ezagutu ez duten vietnamdar-belaunaldi gazteak dira Mendebaldeko bizimoduaren lilurak harrapatzen dituen lehenak.

dira eta bizimodua ere mende-baldartzen ari deneko seinaleak nonahi ageri dira: neonezko argiak hirietan, tango- eta sambamusika diskoteketan eta Japoniatik iritsitako karaoke delakoa "kirol" nazional bilakatu da ho-

Lanik astunenak ere eskuz egiten dira oraindik Vietnamen eta eskulana merke-merkea da. Argazkian ibaian zeharreko harri-garraioa ikusten da, Hanoi inguruan.

Vietnamgo ekonomia eskuloturik zuen nazioarteko isolamendua ziztu bizian desegiten ari da, erabat deuseztu dela ez esatearren. 1992ko konstituzio berriak merkatu-ekonomiari langa ireki dio eta, bere auzoko Txinan bezala, prozesu bitxia ari da gertatzen: erregimena politikoki itxia da, Alderdi Komunistaren gidaritzazalantzan jartzen ez delarik, baina aldiberean kapitalismoari sarbidea erraztu egin zaio. Prozesu honek abiada ia geraezina hartu du Sobietar Batasuna desagertu ondoren eta egun atzerri-inbertsioak egunetik egunera hazten ari dira. Atzerriko bankuak eta multinazionalak lehorreratzten ari

